


/ Nabarmenezkoak

- > San Nikolas plazako komun berritze integrala (4. or.)
- > Lanak Areetako Geltokiko plazako inguruan (4. or.)
- > Eliades Ochoa, Kubako sonero handienetako bat, "Guajiro" bere azken lanarekin dator (3. or.)



Kontzertua. Hilak 15, larunbata, 20:00h, Muxikebarrin, Kerobia (pop-rocka). 10 euro.

A-
GENDA

Umeentzako ikuskizuna. Hilak 16, igandea, 18:00h, Muxikebarrin, "La tormenta": mimo, dantza, txotxongilo eta antzerkia. 8 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

Datorren astelehenean, hilak 10, egitekoa den ezohiko osoko bilkuran berretsi beharko da

Lurraldeko Informazio Batzordeak argi berdea eman dio HAPO berriaren dokumentua behin betiko onartzeari

- Planak bere lau ardatz estrategikoei eusten die: 4.471 etxebizitza berri planifikatzea (horietatik 3.044 babestuak, hirutik bi); eta tokiko jarduera ekonomikoa bultzatzea; 14 hektarea, balio erantsi handiko enpresa-jarduera bultzatzeko; Azkorri zaintzea Getxoko aktibo natural gisa; parke, ekipamendu eta hurbileko zerbitzu berriak sortzea 191.600 m²-ko espazio libreetan; bizitzea, lan egitea eta gozatzea posible den Getxo bat sustatuz.
- Dokumentuak herritarren proposamenak jaso ditu eta aldeko txosten sektorial guztiak ditu, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eta Kostalde, Aire Segurtasun, Errepide eta Trenbideen txostenak barne.

Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berriaren behin betiko dokumentua asteazkenean onartu zuen Lurraldeko Ezohiko Informazio Batzordeak. Plana aurrera ateratu zen EAJ/PNV, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin, eta EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen kontrako botoekin. Mugarri hau funtsezkoa da udalerriko hiri-eredu berria izapidetzeko prozesuan, eta behin betiko onartu beharko da, aurreikusi bezala, datorren astelehenean, azaroaren 10ean, 09:30ean hasi eta egingo den ezohiko osoko bilkuran.

Saioan zehar, txosten horien eskakizun lotesleek eragindako aldaketa minimoen berri eman zen. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa (IAE) dela eta, administrazio eskudunek, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta ingurumen-organoak emandako aldeko irizpenei buruzko informazioa ere eman zen.

Lau ardatz nagusi Getxoren etorkizunerako

HAPO berriak hiri-eredu trinko, inklusibo, erresiliente eta jasangarri bat definitzen du, gizarte- eta lurralde-kohesioaren aldeko apustua egiten duena, genero-ikuspegiduna eta etorkizuneko ikuspegiarekin. Gaur egungo beharrei erantzun eta biharkoak aurreratzen dituen plana da, demografia, gizarte, ekonomia eta ingurumen-erronka handietara egokitua.



Ildo horretan, plan berrian planteatzen den hiri-eredua lehentasuneko 4 ardatz batzorearen emaitza da: soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa eta fisikoa. Plan berriaren eta anbiguo handikoa da, eta aurrekaririk gabeko eraldaketa ekarriko du. Etorkizuneko proposamena, Giza Garapen Jasangarriarekin bat datorrena.

Plana funtsezko lau lehentasunen inguruan egituratzen da:

1) 4.471 etxebizitza berri erakitzea biztanleria gazteenaren premiei aurre egiteko, biztanleria mantendu eta berreskuratze helburuarekin, eta kudeaketa-marjina bat geratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (DOT) adierazitako 4.790 etxebizitzetara iritsi arte.

• HAPOk 3.044 etxebizitza babestu (% 68,10) eta 1.427 etxebizitza libre (% 31,90) definitzen ditu etxebizitza babestuen estandarrik betetzeko, bai hiri-lurzoruan (% 40 babestua eta % 60 libre), bai lurzoru urbanizagarrian (% 80 babestua eta % 20 libre).

2) Jarduera ekonomikoa bultzatzea, lotarako hiri-eredua saihestuz eta Getxon bizitzeko, gozatzeko eta lan egiteko aukera emanez. Horretarako, planak honako hau proposatzen du:

- 14 hektareako lurzoru urbanizagarriko sektorea abian jartzea jarduera ekonomikoa estrategikoetarako Martiturrin, bertako talentua atxikitzeko.
- Hurbileko ehun ekonomikoa bultzatzea, hiria biziberritzeko erabilerekin nahasketa erraztuz.

3) Azkorri Getxoko aktibo natural gisa babesteko apustua: HAPO berriak lurzoruen % 70-80 bitartean zaintzea aurreikusten du, parke, ekipamendu eta hurbileko zerbitzu berriak sortuz, Juan Cuadrado kaletik haziz.

4) Parke, ekipamendu eta hurbileko zerbitzu berriak sortzea:

- 191.600 m²-ko espazio libreak aurreikusten dira. Murun 35.208 m²-ko parke handi bat sortzea aipatu behar da.
- Zuzkidura-bizitokietarako, lur-sailak erreserbatzen dira Zubilletan, Peña Santa Marinan eta Dilizgoikoan.

HAPO berriak ere eragin positiboa izango du Andra Mari auzoan. Hori babestu egingo da, eta dauden etxebizitzak eta baserriak arautzearekin konbinatuko da, eraikinak eta haien ingurune naturala zaintzen eta birgaitzen laguntzeko.

Amaia Aguirre Getxoko alkatetik momentuaren garrantzia azpimarratu du: "HAPO berri hau Getxok bere etorkizuna eraikitze behar zuen tresna da. 25 urte baino gehiago gure hirigintza-eredua eguneratu gabe egon ondoren, aurrerapauso erabakigarria eman dugu garai berriei, bizimodu berriei eta herritarren lehentasunei erantzuteko. Plan hau ez da dokumentu tekniko bat bakarrik: Getxo berri bat irudikatze eta eraikitze aukera da, orekatuagoa, jasangarriagoa eta pertsona guztientzako aukera gehiagorekin".



AZAROAK 6 OSTEGUNA

Erakusketa. Azaroaren 26ra arte, Romo Kultur Etxean, Eider Morenoren "Apurtu" (2025eko Getxo Arte beka). Orduetia: 08:30-21:30h, astelehenerik ostiralera, eta 09:30-20:30h, asteburu eta jaiegunetan.

Erakusketa. Abenduaren 31ra arte, Algortako Batzoki Tabernan, Javier Landetaren olioak (Antzezaleak kolektiboko kidea).

Zinemabarrri. 19:00h, Muxikebarrin, Miguel Gomesen "Grand Tour"-en emanaldia (jatorrizko bertsoa azpitu-luekin). 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50 euro.

Zine foruma. Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo. 18:00h, Romo Kultur Etxean, Terrence Mallicken "El árbol de la vida"-ren emanaldia. Sarrera doan (lekua erreserbatzeko: cine-forumgetxo@icmediaeuska.es).

AZAROAK 7 OSTIRALA

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica". Hizlaria: Diego de Amigo, biolinista, kompositore garaikidea eta Barakaldo eta Gasteizko kontserbatorioetako irakaslea. www.allantica.org

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Bidasoatik harago", Xabier Solano eta Jon Garmendia 'Txuria'-rekin. Sarrera: 10€.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Jon Garaño eta Aitor Arregiren "Aundiya". 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50 euro.

Hezetasuneko jaiak. 17:00etan, jaien hasiera. Ikusi 3. orrialdea. Egitarau osoa: @hezetasuna_jaiak

AZAROAK 8 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Elíades Ochoa. Sarrera: 25 euro.

Dantza Plaza. 19:30ean, San Nikolas Ikastolan (Hezetasuna-Algorta), erromeria herrikoia bertako Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin. Parte-hartze irekia.

Hezetasuneko jaiak. Ikusi 3. orrialdea. Egitarau osoa: @hezetasuna_jaiak.

Ipar martxa. Getxotik ibili. 10:00etan, irteera Algortako batzokitik. Makilen mailegua eta prestakuntza txikia 09:15etik aurrera. Informazioa: nw.itxartu@gmail.com. Antolatzailea: Itxartu Mendi Taldea.

RAP tailerra. La Basurekin, emakumeentzat, azaroaren 8, 9, 29 eta 30ean, 11:00etatik 13:00etara, Abian Kultur Elkartearen egoitzan. Izenematea: 633412905

AZAROAK 9 IGANDEA

Azoka solidarioa. Kanean daudden pertsonen alde. 11:00etatik 14:30era San Nikolas plazan. Liburu, jostailu eta egile-zeramikaren salmenta. 12:00etatik aurrera, dantza erakustaldia eta haurrentzako tailerrak ProBolivia, Itxartu, Las Lombardas, Gaude eta Club Social Argia Fundazioarekin.

Zinematziki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Pirata arratoia". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50 euro.

Igandeko haur zinea. 17:00etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, "Mary superchef"-en proiektzioa (gaztelaniaz). Adin guztientzat (berezi umeentzat). Sarrera: 2,50 euro.

Haurrak-Familiak. Antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Nire beldurrik maiteenak" komedia, Producciones Maestras konpainiarekin. Sarrera: 8 euro.

Hezetasuneko jaiak. Ikusi 3. orrialdea. Egitarau osoa: @hezetasuna_jaiak.

AZAROAK 10 ASTELEHENA

Omenaldia. 13:30ean, Udaltxearena aurrean, elkarretaratze isila, Memoriaren Eguna dela eta.

Merkatu txiki solidarioa. Romoko San José parrokian. 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Igandean 11:00etatik 14:00etara. Antolatzailea: Gizatiar-Romo-Areetako emakumeen elkarte soziokulturala.

AZAROAK 11 ASTEARTEA

Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa. Hilaren 16ra arte, Romo Kultur Etxean. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00. Igandean 12:00ak arte.

AZAROAK 13 OSTEGUNA

Hitzaldia. 18:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "¿Qué pasa en Venezuela?". Hizlariak: Juan Manuel Hernández Legazcue (KFAko eta PC-PEko militantea) eta Glenna Cabello (Venezuelako kontsula Bilbon). Antolatzailea: Ezkerretik Foroa.

Zinemabarrri. 19:00h, Muxikebarrin, Pablo Hernandezen "Una ballena" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Getxoko Klima eta Energia Plana. Aurrez aurreko parte-hartze saioa. 19:30ean, Getxo Elkartegian (Ogoño kalea 1, Areea). Herritarrei irekia. Plaza mugatuak. Inskripzioa: <https://labur.eus/4hliqk> Antolatzailea: Getxoko Udala.

AZAROAK 14 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera (gaztelaniaz).

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "You have a inner world, so what? - Tienes una vida interior ¿y qué?". 6€.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Alain Giraudieren "Misericordia". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

AZAROAK 15 LARUNBATA

Ipuin kontaketa. Storytime. 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "The far west" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): ge-txo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Kerobia (pop-rock). 10€.

AZAROAK 16 IGANDEA

Zinematziki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Una noche en Zoópolis" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "La tormenta" (gaztelaniaz), mimo, dantza, txo-xongiloak eta antzerkia, Zero en conducta konpainiarekin. 8 urtetik aurrera. 8€.

Urriko udalbatzako mozioak

Ohiko azken udalbatzaren mozioen atalean, eta era testimonialean, la onartu ziren. Lehenengo biak, PPK aurkeztutakoak. Batetik, hildako konpainia-animalki oroitze eta agurtze espazio publiko bat sortzeko aukera aztertzea eskatzen zuen, eta, bestetik, aplikaezinak diren ordenantzak eta gainerako udal-araudiak indargabetzea, eta jasotako zenbateko guztiak eurotan adierazita egotea.

Hirugarren mozioak, EH-Bilduk planteatutakoak, Amezti kaleko merkataritzari, ostalaritzari eta auzotarrei irekitako parte-hartze prozesu bat proposatzen zuen, kalea eta bere ingurua biziberritzeko, besteak beste, kalearen alde erdia oinezkoentzat jartzeko aukera aztertuz.

Eztabaidaren zati handi bat Getxoko Kirol Portuari buruzkoa izan zen. EH-Bilduk Abra Getxo Kirol Portuko udal jabe goaren zatia Eusko Jaurlaritzari transferitzeko aurkeztutako mozioari, arraun eta piraguisimo pabiloien funtzionamen-

dua ziurtatuz, ezezkia eman zitzaion, baina horri PPren beste mozio bat gehitu zitzaion, zeina izapidetzeko onartu baitzen, urgentziaz, Kirol Portuko zuzendaria kargutik kentzeko, "kudeaketa txarragatik".

Lehenengo kasuan, PPK, EH Bilduk eta EPk Sociedad Puer-to Deportivo-El Abra Getxo sozietateari eta EAJ/PNVri leporatu zieten iluntasuna kudeaketan, eta erantzukizunak argitzea eskatu zuten egungo egoerara iritsi arte, enpresa emakidadunak Portua ustiatzeko indarrean dagoen kontratuari uko egin ondoren. PSE-EE konponbideak eta adostasunak bilatzearen alde agertu zen, eta egoera horretara iristeko zerk huts egin duen aztertzearen alde, eta, beharrezkoa bada, erantzukizunak argitzearen alde, eta PPK bezala, udal jabetza Eusko Jaurlaritzari baino Portu Agintaritzari transferitzea egingarriagoa dela uste du, mozioak planteatzen zuen bezala.

EAJ/PNVk, bere aldetik, gogorazi zuen kudeaketa 2026an

esku publikoetara pasatuko dela eta portuak martxan jarraituko duela eta bere zerbitzuak bermatuta egongo direla, sozietatearen zuzendaritzaren gardentasuna, legez-kotasuna eta erantzukizuna une oro defendatzearekin batera. Halaber, galdetu zuen ea zergatik ez den interesatu gai hori sozietatearen Administrazio Kontseiluan eztabaidatzea, bere taldeak planteatu zuen bezala, han hartzen baitira erabakiak eta han planteatu beharko bailirateke desadostasunak, "baina ez da titularririk ematen ezta sortzen". EAJ/PNVk onartu zuen Portuan pandemiaren ondoren hasitako proiektuak ez duela espero zen emaitza izan, baina ziurtatu du legez-kotasun zorrotzaren barruan garatutako prozesua izan dela, prozedura eta eskakizun arauemaile guztiak betez.

Sozietate Publikoko zuzendaria kargutik kentzeko bigarren mozioa, EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen babesarekin onartu zen, uste baitute "osoko bilkura dela gai honi buruz eta kargu publiko bati buruz eztabaidatzeko foro egokia". Bestalde, EAJ/PNVk eta PSE-EEk adierazi zuten Sozietatearen Administrazio Kontseilua dela zuzendaria izendatzeko eta kargutik kentzeko eskumena duen organoa, eta ez osoko bilkura. Horregatik, lehenengoak kontra bozkatu zuen eta bigarrena abstentitu egin zen. EAJ/PNVren ustez, "eztabaida hau Osoko Bilkurara ekartzea eta hemen erakunde publiko bateko langile baten profesionaltasunari buruz eztabaidatzen uztea oso larria iruditzen zaigu, langilearen oinarriko eskubideak urratzen dituelako, bereziki defentsarako eskubideak".

Publikoaren eskaeren eta galderekin txandan, sei pertsonak hartu zuten parte, eta hainbat gairen inguruan dituzten kezak azaldu zituzten: garbiketa, Salsiduko arrapalak...

Joste Solidarioaren erakusketa

Azaroaren 10etik 14ra Joste Solidarioaren tailerrean egindako haurrentzako arropen erakusketa eta salmenta izango da Urgull Zentroan, +60 Dinamizazio Zerbitzuan eginda. Erakusketa bisitatzeko ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era izango da. Dirubilketa ASPANOVAS, elkartearentzat izango da.

TOKIKO KLIMA ETA ENERGIA PLANA
AURREZ AURREKO PARTE-HARTZE SAIOA

Getxoko Udalak aurrez aurreko parte-hartze saio bat antolatu du, herritarrei irekia, udalerriko Klima eta Energia Planak jasoko dituen neurriei buruz ekarpenak egin ahal izateko.

Animatu eta parte hartu!

AZAROAREN 13AN
19:30ean
Getxo Elkartegia,
Ogoño kalea, 1 (Areea)

PLAZA MUGATUAK.

Parte hartzeko, QR Kodigoa eskaneatu edo estekaren bidez izena eman <https://labur.eus/4hliqk>

Gazteek etxebizitza errazago eskuratzeko baliabideak

Gazteria Zerbitzuak *Etxebizitza eta gazteak. Aukerak eta baliabideak* (euskaraz), udalerriko 16 eta 30 urte bitarteko gazteei etxebizitza bat eskuratzeko

dauden aukeren eta baliabideen berri emateko. Algortako (Villamonte) Kultur Etxean izango da, 19:30ean. Izena emateko: gaztebulegoa@getxo.eus

Algortako Dendak eta Romo Bizirik-en zozketak

Algortako Dendak eta Romo Bizirik elkarteek tokiko kontsumoa sustatzeko eta saltoki txikiak babesten dituzten herritarren fideltasuna saritzeko ekimen bat jarri dute abian.

Azaroaren 23ra arte, 1.000 euro baino gehiago zozkatuko dira tokiko esperientzietan, atxikitako 83 establezimenduetan erosketak egiten dituzten pertsonen artean.





Eliades Ochoa, Kubako sonero handienetako bat, "Guajiro" bere azken lanarekin dator

Eliades Ochoak, garai guztietako sonero kubatar ospetsuenetako batek, kontzertua eskainiko du Muxikebarrin larunbat honetan, hilak 8, *Guajiro Tour* biraren barruan. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak 30 euro balio du.

4 Grammy latinoen irabazlea, ziu-rrenik, bere belaunaldiko gitarrak-jole onena da. Buena Vista Social Club dimentsioko proiektuetan parte hartu du, eta, bere kapela bereizgarria jantzita, mundu oso-ko agertokietan ibili da Kubako musika hurbiltzeko.

Ochoa Getxora itzuli da, 17 urte geroago, *Guajiro* bere azken lanarekin. Kritikak dio proposamen diskografiko zoragarria dela, Kubako soinu tradizionalan duen maisutasuna erakusten duena. "Musika kutsakorra, publikoa mugitzera eta dantzatzera gonbidatzen duena".

Hezetasuneko jaiak

Ostiral honetan, hilak 7, 17:00etan hasiko dira Sanmartin jaiak Al-gortako Hezetasun auzoan. Egun horretarako, batzordeak, besteak beste, diskofesta bat antolatu du Oihan Vega DJarekin, txapel jaurtiketa txapelketa, karaokea... eta 23:00etan Bidean Erromeriaren kontzertua. Larunbatean, hilak 8, jarduerak 11:00etan hasiko dira (igel eta tiragoma txapelketa, haur-errentzako tailerrak...) eta, 16:30etik aurrera, bingo musikala, aurre-skulari txapelketa, elektrotxaranga, txotxongiloak eta fandango eta arin-arin txapelketa. Gauean, 22:30ean, Mairi eta Parabellum taldeen kontzertua izango da. Igandean, 11:00etatik aurrera, kro-sa, lapikoko lehiaketa, azoka... eta, 17:30etik aurrera, karate erakustaldia, Mariatxiren kontzertua eta txokolatada. 20:00etan txerri-erre eta jaien amaiera. Egitaraua: <https://labur.eus/wshkoxit>

"Bidasoatik harago", musika, ipuin laburrak eta poemak

Xabier Solanok eta Jon Garmendia *Txuria*-k aurkeztuko dute ostiral honetan, azaroak 7, Muxikebarrin, *Bidasoatik harago*, ipuin laburrak eta trikitiaz eta gitarrak lagundutako poemak batzen dituen ikuskizuna. Zentzumenak eta emozioak pizteko gonbidapena da. Hegoaldetik iparraldera eta iparraldetik hegoaldera Bidasoa ibaia, hitzekin eta musikarekin jolastuz entretenimendu aberasgarria.



Solanok eta Garmendiak hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea dute. Besteak beste, Etzakit, 4 itzal edo Esne Beltza taldeetan parte hartu dute, eta bakarka ere ibilbide luzea egin dute.

"Getxo Sound Podcast"-ek herriko taldeen ibilbidea berrikusiko du

Getxoko hainbat musika estilotako talde eta artisten lana sustatzeko asmoz, Getxo Kulturak, bertako Vinilo FM irratiarekin lankidetzan, *Getxo Sound* podcast sorta jarri du abian. Lehenengo denboraldia azaroaren 9ra arte luzatuko da, eta Getxo Soundeko (80ko hamarkadatik aurrera bertako taldeek Kultur Aretoarekin lankidetzan bultzatutako musika mugimendua) talde esanguratsuenetako batzuen ibilbidea berrikusiko du, beste artista eta tal-

de batzuk alde batera utzi gabe. Kapituluak, 12 lehen denboraldian, 50 minutu irauten dute, eta Getxo Kulturaren profilen bidez zabaltzen dira Spotify eta Ivoox plataformetan, baita getxo-kultura.eus webgunean ere. Lehenengoa Pepe Herediari buruzkoa izan zen, eta gainerakoak hemen kontsulta daitezke: <https://labur.eus/fp61ctnh> Vinilo FMn ere emititzen dira, heldapen digitalaren hurrengo astean, asteartean, 20:00etan.

Haur antzerkia euskaraz

Producciones Maestras konpainia Muxikebarrira iritsiko da igande honetan, hilak 9, eta bertan, 18:00etatik aurrera, *Nire beldurrik maiteenak* komedia antzeztuko du.

Bidaia dibertigarria da, eta protagonistak, Von Simon eta Von Soria irakasle zientifikoak, beldurraren benetako formula eta mutazioak bilatzen eta bilatzen ari dira. Haurtzaroan sortzen diren eta, askotan, helduaroan gure ondoan jarraitzen duten beldurretatik ikertzen dute. Beren buruari galdetzen diote: zeren beldur gara beldur garenean? Sarrera: 8€.



"Argia Ereiten" saria Bidean Erromeria taldeari emanda TikiToki zentroan

Amaia Aguirre alkateak Argia Ereiten XVI. Euskara Saria, Ibon Garagarza artista getxotarrak egindako eskultura, eman zion Bidean Erromeria taldeari, aurreko asteartean, hilak 4, TikiToki zentroan ospatutako ekitaldian. Alkateak taldeari eskerrak eman zizkion jendea euskal kulturara erakartzeagatik, sare sozialetan euskara erabiltzea sustatzeagatik, erraz eta era naturalean ondo pasatzen laguntzeagatik, bizi-poza zabaltzeagatik, eta ilusioa erakusteko... gainera Getxotik. Bestalde, Aritz Landeta taldearen izenean, eskerrak eman zizkien, besteak beste, Udalari, senideei, lagunei, kolaboratzaileei, herriko kultur eragileei, aurreko Euskara Saridunei eta beraiek jotzen dituzten abestien sortzaileei. Era berean, gazteak musika sortzeko baliabideen beharra aipatu zuen, emakumeen presentzia oholtzan aldarrikatu zuen, eta euskararekiko konpromisoa eta konstantzia eskatu zituen.

Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa

Azaroaren 11tik 16ra, Romo Kultur Etxeak Bigarren Eskuko XVIII. Liburu Azoka Solidarioa hartuko du, Liburutegi Zerbitzuak Garapenerako Lankidetzaren udal arloarekin elkarlanean antolatutako ekimena. Publikoak gai askotako liburuak erosi ahal izango ditu prezio simbolikoan. Bildutako dirua lankidetzaren solidarioko proiektu batera bideratuko da.

Erakusketak

Getxoarte 2025 beka irabazi duen Eider Morenoren *Apurtu* proiektua Romo Kultur Etxean bisitatu ahal izango da azaroaren 6tik 26ra. Erakusketak Lemoizko zentral nuklearraren inguruko gatazka berrikusten du argazkiaren eta memoriaren bidez. Morenok bisita gidatua egingo du hilaren 19an, 19:30ean. Eta Batzoki Taberna Algortan, Javier Landetaren (Antzezaleak kolektiboko kidea) olioak daude ikusgai.

Hasierako onarpena eman zaio Kalez kaleko Salmentari buruzko udal Ordenantzari

EAJ/PNV eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin, PPren eta Elkarrekin Podemos-EPren abstentzioarekin eta EH Bilduren kontrako botoekin, hasieran onartu zen urriko osoko bilkuran Kalez kaleko Salmentako udal Ordenantza berria. Ordenantza horrek egungoa indargabetzen du eta bere helburua erregulazioa udalerriko sektore ekonomikora eta egungo merkataritza-errealitatera egokitzea da. Oposizioa hiru alderdiek zuzenketak aurkeztu zituzten: batzuk ez ziren tramiterako onartu legezotasunera ez egokitzegatik; beste batzuk onartu egin ziren eta ordenantza sartu dira, eta beste batzuk ezetsi egin ziren.

Ordenantzak, besteak beste, astean aldizkako bi azoka egiteko aukera jasotzen du, baita genero eraginaren ebaluazio-txostena ere.

Ildo horretatik, PPK proposatu zuen aldizkako merkatuak hilean batera murriztea, alokairua, EJZ eta beste tasa eta zerga batzuk ordaintzen dituzten establezimenduentzat mehatxu izan daitezkeela uste dutelako; eta Elkarrekin Podemos eta EH-Bildu taldeek adierazi zuten ordenantzak ez duela generoari dagokionez eragin positiboa duen neurririk aurreikusten, eta talde politikoekin bilerak egin arren ez dela elkarriketarako borondate-



rik egon. Lehenengoak, EPk, esan zuen ordenantzak "eredu eraldatzaileago bat sustatu" beharko lukeela, eta bigarrenak, EH-Bilduk, azoka txikiei dagokienez "herritarrei ezin zaiela eskatu administrazio publikoaren erritmo moteletara egokitzeko, alderantziz izan behar duela", eta bide publikoa okupatzeko beste edozein jarduerak bezala, udalaren baime-na izan behar dutela.

Udal Gobernuak, bere aldetik, positibotzat baloratu zuen Getxok lehen sektoreko produktuen aldizkako merkaturia izatea, eta honako hau nabarmendu zuen: "ordenantza berriak merkataritza-jardueraren oreka bilatzen du establezimendu finkoa duten merkatarien eta kalez kaleko salmenta egiten dutenen artean, hau da, kaleko salmentak dagoeneko ezarrita dagoen merkataritza-sektorean eragin negatiborik ez

izatea, eta modu parte-hartzailean egin da lan udal-talde guztiekin".

Ordenantzaren hasierako onarpeneren ondoren 30 eguneko epean interesdunei entzuteko jendaurreko erakustaldiaren izapidea irekiko da.

"La Terraza" ustiapenaren emakidatunari zigorra jarri zaio

Osoko bilkuran aho batez erabaki zen La Terraza udal-eraikina ustiatzeko zerbitzuaz arduratzen den aldi baterako enpresa-elkarteari 1.000 euroko zigorra ezartzeko prozedura hastea. Zehapena ezarri zaio emakida-kontratuan ezarrita dagoen kanona ordaintzeko betebeharra hiru hilerokotan ez betetzeagatik. Oposizioak "erabaki zorrotzagoak" eskatu zizkion gobernuari. EH-Bilduk eta Elkarrekin Podemosek "kontratuaren deuseztapena

baloratzea" eskatu zuten, eta Gobernuak adierazi zuen lanean ari direla kontratuaren eta zerbitzuaren bidegarritasuna bermatzeko.

ELZ eta dirulaguntzak

Beste alde batetik, 370.000 euroko kreditu gehigarria onartu zen Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua egungo baldintzetan eman ahal izateko, gero eta erabilzaile gehiago dituelako.

Gainera 21.000 euro baino gehiago emango zaizkio Asociación Claretiana Sortarazi Elkarteari. Zenbateko horretatik 14.752 euro Bizkaia Gaztea hitzarmenera bideratuko dira; ekimen hau hiru urterako programa da (2025, 2026 eta 2027), Foru Aldundiak ere finantzatzen du eta, era berean, Uribe-Kostako Mankomunitateak eta Leioak ere parte hartzen dute; eta laguntza-sarerik gabe bazterketa-arriskuan dauden gazteentzako hasierako gizarte- eta prestakuntza-ibilbideak ahalbidetzeko xedea du. Gainerako 6.322 euroak gazteei gizarteratzeko laguntza, orientazioa eta aholkularitza emateko zerbitzu batera bideratuko dira. Gizatiar, Romo-Areetako Emakumeen Elkarte Soziokulturalari ere, 8.950 euro gehiago emango zaizkio bere 30. urteurrena ospatzeko; dirulaguntza guztira 24.700 eurokoa da.



San Nikolas plazako komun berritze integrala

Algortako San Nikolas plazan dauden komun publikoak birgaitzeko lanak aste honetan hasi dira. Jarduera justifikatuta dago egungo komunetako akaberrak egoera txarrean daudelako eta komunak zaharkituta daudelako. Izan ere, zaharberritzea amaitu ondoren, komun modernoak, erosoak, irisgarriak eta seguruak izango dira, banaketa berri bat izango baitute, irekiagoa; eta inklusiboak eta eraginkorak ere izango dira. Altxairu herdoilgaitzeak aukeratu dira, erresistentzia handiagoa izateko. Komunak gauez itxi ahal izateko, plaza azpiko aparkalekuko sarbidearen egoera aldatu egingo da, izan ere, modu horretan komunak eremutik bereizi ahal izango dira. Zerbitzuaren jarraitutasuna bermatu da, plazaren inguruan ordeko komun-moduluak instalatu baitira herritarrek erabil ditzaten. Lanak egiteko epea hiru hilabete ingurukoa da eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua 164.810 eurokoa da (BEZa barne).

Ikastaroak zaintzaileentzat

Udalak prestakuntza programa berri bat antolatu du mendekotasun egoeran dauden pertsonen senide zaintzaileentzat, azarotik urtarrilera. Helburua horien eguneroko bizitzarako baliagarriak diren gai praktikoak jorratzea da, saio batean edo bitan, 16:00eta-

tik 18:00etara, gaztelaniaz, udal egoitzan. Jorratu beharreko gaiak oinarriko jarduerak, elikadura, lehen sorospinak, egoera zailak, komunikazioa, azalaren zaintzea eta erortzeak prebenitzea izango dira. Doako izenematea: etxonzaindu@getxo.eus / 683 193 092

Lanak Areetako Geltokiko plazako inguruan

Abenduaren 15era arte, Udalak hainbat lan egingo ditu Areetako Nagusia, Zalama eta Arlamendi kaleen elkargunean zirkulazioa berrantolatzeko, zoladura berritzeko, ur-sareko maniobrak eta drainatzea hobetzeko, Getxolandiako Gabonetako haur-parkea ipintzeko. Esku-

-hartzeari esker, espazioa irabaziko da Geltokiko plazarantz, eta behin betiko bihurtuko da Getxolandiaren instalazioa dela-eta urtero egiten zen behin-behineko antolaketa. Horrekin, irisgarritasuna, segurtasuna eta oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen arteko bizikidetzak hobetuko da.

Dominak Munduko Dantza Txapelketan

14 eta 17 urte bitarteko lau kirolari getxotarrek, Haizea Gómez, Markel Laiseka, Patricia Barrenchea eta Eki Ibáñez, domina ugari eskuratu dituzte (9 urre eta 4 zilar), bakarka zein taldean, urriaren amaieran Varsovian (Polonia) egindako XXIII. Munduko Dantza Modernoaren Txapelketan.

Lau gazteak Leioako La Fabrika Zirkua eta Dantza Eskolako kideak dira. Eskola hori Fitkiden (dantza akrobatikoa) espezializatuta dago, eta bertan talentu handiko adingabe horiek trebatzen ari dira. Ziur asko, urte gutxiren buruan, Cirque du Soleilentzat egongo dira lanean, kide diren zentroko zuzendaritzatik nabarmendu dutenez.

